



**Nerea Crespo
Iraitz Bengoetxea
Aner Asorey
Nahia Azkarate**

GIZARTEAN HAUTEMAN DUGUN ARAZOA:

Gizarte honetan gure egunerokotasunean arazo bat dagoela antzeman dugu:

- Motoen erabilera geroz eta ugariagoa da eta 2019an **23.122 istripu** egon ziren (ideia bat egiteko, Oreretako biztanleria erdia izango litzateke). Gainera, horietatik, **1098 hildako** egon ziren.
- Istripu horiek edukitzerakoan, azkartasun falta nabaria da, izan ere, istripua sufritu duten horiek inkontziente gelditu badira, haien informazio esanguratsuen falta zaie medikuei edota laguntzen ari direnei (odolarena adibidez).






Arazoa konpontzeko berrikuntza bat merkaturatzea beharrezkoa da

GURE IDEIA

Ondorengo webgunea sortzea da:

- Pertsona batek motoan istripu bat edukiz gero, kaskoak QR kodea duen pegatina bat edukiko luke.
- Webgune honekin, laguntzera doan pertsonak QR kodea eskaneatu eta pertsonaren honako ezaugarri hauek jasoko lituzke; istripua jasan duenaren izen-abizenak, alergiarik baduen ala ez, gaixotasunak, odolaren ezaugarriak, DNl-a eta bere zuzeneko kontaktuak (gurasoak edo dena delakoa).
- Beste aukera bat emango dugu, non erabiltzaileek nahi dituzten ezaugarriak gehitu ahalko dituzten.



GIZARTEARI EKAR DIEZAZKIOKEGUN ONURAK:

- **Hospitaleei edota medikuei lana erraztea, eskainitako azkartasunaren bidez.**
- **Bizitzak salbatzea.**
- **Familiarekin erraz kontaktuan jartzea.**
- **Zerbitzu honek, kaskoen lapurketen murrizketan lagunduko luke. Azken finean bere kaskoa lokalizatua edukiko zuelako.**




NORENTZAT DOA BIDERATUTA?

Idea hau erakargarria izango litzateke egunerokotasunean motoa erabiltzen dutenentzat. Horretarako, galdetegi bat egin dugu, gure ideiarekiko interesa duten edo ez jakiteko.




Zenbat urte dituzu?

18 respuestas




Noizbait istripurik eduki duzu?

18 respuestas




Noizbait istripurik ikusi duzu?

18 respuestas



Guk horretarako, ondorengo aplikazioa sortzea pentsatu dugu eta horrela funtzionatuko luke: pertsona batek motoan istripu bat edukiz gero, kaskoan QR kodea duen pegatina bat edukiko luke. Aplikazio honekin, laguntzera doan pertsonak QR kodea eskaneatu eta pertsonaren honako ezaugarri hauek jasoko lituzke; istripua jasan duenaren izen-abizenak, odolaren ezaugarriak, DNla eta bere zuzeneko kontaktuak (gurasoak edo dena delakoa).
Idea interesgarria iruditzen al zaizu?

18 respuestas



Idea honi zerbait gehitu edo aldaketarik egingo zenioke? Hala bada, zer?

8 respuestas

ez

Ez dakit

No


Gaixotasunak eta alergiak

Ez, ideia oso ona iruditzen zait.

Gertatu daiteke pertsona horrek kaskoa galtzea eta informazio hori beste edozeinen esku gelditzea

Ordaintzeko prest egongo zinake?

18 respuestas



- Interesatzen zait eta prezio jakin bat ordaintzeko prest egongo nintzake
- Interesatzen zait baina ez nuke ordainduko
- Ez zait interesatzen

GALDETEGIAREN ONDORIO OROKORRAK:

- Orokorrean esan dezakegu gure ideia adin ezberdineko jendeari interesgarria iruditzen zaiola, izan ere, 17-51 urte bitarteko jendeak bete du galdetegia. Dena den, helduen artean ideia interesgarriagoa iruditzen zaiela jabetu gara.
- Interes-mailari dagokionez, 18 pertsona horietatik...
 - Erdia baino gehiago prezio jakin bat ordaintzeko prest egongo litzake.
 - %30a interesatua dago baina ez luke ordainduko.
 - Pertsona bati ez zaio ideia interesgarria iruditzen.
- Horrez gain, %60ak istripu bat eduki duela erantzun du eta ia denek istripu bat ikusi dutela.
- Gehienek ez dute gomendatu hobekuntzarik, eta beste batzuek, gaixotasunak eta alergiei buruzko informazioa gehitzea gomendatu eta kaskoa galtzekotan, informazio hori eskuratzearen arriskua aipatu dute.